



Akunyili jendeaurrean eskaini zuen agerraldi batean. GAUR8

sare sozialetan bolo-bolo zabaldu zen albistea eta dolua. «Nigeriaren ordurik ilunenetako argi» gisa definitu zuten batzuek. «Gaixorik zeuden nigeriarrek guztiz itzalpean zeudenean; Dora argia izan zen, argi izpi bat. Bere kargu publikoan, zikindutako beira zeharkatzen duen argia izan zen. Azkarra zen, geldiezina, justizia egarrian defendatzaile sutua», idatzi zuen Bayo Oluwasanmik.

Honakoa, berriz, Saatah Nubarik: «Ez dut sinesten kalean oinez indartsu eta osasuntsu dabilzan nigeriarren kopurua. Hori zure bihotz eta indarrari esker da. Hamarkadetan, konturatu gabe gure bizitzak agortzen zituzten botikak hartu ditugu. Agentziako buru gisa egin zuen la-

nagatik izan ez balitz, ez dakit zenbat ama, aita, anai-arreba edo lagun ez ote genituen galduko».

«Dorak oso garaiz abiatu zuen osotasunaren bidea; izan ere, oraindik gaztea zela, bere buruaz eta familiaz arduratzen zen, baina baita Nigeriako herritarrei bizimodua aldatzeaz ere. Gizon eta emakumeei maitasuna zien, eta horregatik egiten zuen, ez aberastasunik edo osperik ematen ziolako», idatzi zuen Bukola Adelou-Dele blogariak.

Bere alabak, berriz, zera idatzi zion sarean: «Askorentzat bera ikur bat izan zen eta beste batzuentzat inspirazioa. Niretzat, ama eta beste guztia izan zen».

Adelou-Dele: «Dorak oso garaiz abiatu zuen osotasunaren bidea; izan ere, oraindik gaztea zela, bere buruaz eta bere familiaz arduratzen zen, baina baita Nigeriako herritarrei bizimodua aldatzeaz ere. Gizon eta emakumeei maitasuna zien, eta horregatik egiten zuen, ez aberastasunik edo osperik ematen ziolako»

Suomi

Aitor Etxebarria

Finlandiarrez bete zaizkigu Bilbo, Barakaldo eta Euskal Herriko kaleak. Zein da horren urruti dauden bi herri hauen arteko harremana? Edo zergatik begiratzen diote elkarri guk uste baino maizago? Txillardegia handia aitzindaria izan zen horretan ere, miresmen handiz ikasi eta idatzi zuen Suomiri (Finlandia) eta suomierari (finlandiera) buruz. Euskara eta suomiera, oraindik bizirik jarraitzen duten hizkuntza aurreindoeuropar bakarrenetarikoak dira; horrenbeste urte bizirik eta elkarrekin harremanik ez. Eta gure Txillardegia Timo Riiho deitzen da Suomin, euskara eta euskal jatorria ikasi eta irakatsi dituen hizkuntzalaria. Oraindik ere badira Helsinkiko Unibertsitatean euskara ikasten duten ikasle gutxi batzuk, arraroa gertuago ditugun fakultate askotan aukera hori ez egotea.

Bost milioi biztanle «bakarrik» dauzkan herrialdeak hiru hizkuntza ofizial ditu, suomierarekin batera ofizialak baitira ere suediera eta samiera. Bitxia gero, adibidez, 60 milioi biztanle dauzkan estatu frantsesean hizkuntza ofizial bakarra dagoela ikustea. Frantsesa, gaztelania, hizkuntza gazteak dira suomierarekin konparatuz, baina hiru herrietako agintarien jarrerak eta politikak begiratzuz eta konparatuz gero, frantsesa eta espainiarra estatu aurreindoeuroparrak direla esango nuke, duda izpirik gabe, eta Suomi aldiz errespetuan eta demokrazian oinarrituriko herri modernoak.

Aurreko ostiralean Bilboko alde zaharretik paseoan, Garik abesten zuen egun finlandiar luze bat ez ezik, gau suomitarrek zeinen luze bilaka daitezkeen ikasi nuen, ondo ikasi ere. Urte erdia ilunpetan eta beste erdia eguzkipean bi zi diren “blondez” bete zaizkigu tabernak, hotelak eta saskibalo aretoak. Ea bueltarako bidea hasi aurretik zer edo zer ikasten dugun haietaz. •